


Euskal AEko industri jarduera %6,6 hazi zen 2005eko uztailean

2005eko lehenengo zazpi hilabeteko bilakaerak %2,9ko hazkundera izan zuen, 2004ko aldi beraren aldean

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2005eko uztailean, lan egutegiko termino homogeneotan %6,6 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2004ko hil beraren aldean. Datu horrek baieztatu egin zuen urtearen bigarren hiruhilekoan nabaritu zen susperraldia (%+4,7), urtearen lehenengo zazpi hilabeteetan %2,9 hazi baitzen industri jarduera, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2005eko uztailean %1,6 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin alderatuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua



(*) 2005eko uztaileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektore-bilakaera

Sektoreka, industri sektore handien sailkapena kontuan hartuta, 2005eko uztaileko indizearen bilakaerak aldakuntza positiboak izan zituen sektore guztietan, 2004ko uztailearekin alderatuta: *energia* %6,6 hazi zen, *ekipo-ondasunak* %8,7, *bitarteko ondasunak* %4,4 eta *kontsumo-ondasunak* %6,8%. Azken horiek honela banatu ziren: *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %5,1 hazi ziren, eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %7,8.

2005eko lehenengo zazpi hilabeteen metatuan, *ekipo-ondasunak* %6,1 hazi ziren, *bitarteko ondasunak* %1,7, *energia* %1,4 eta *kontsumo-ondasunak* %0,6; *kontsumo-*

-ondasun iraunkorrak %0,8 eta kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %0,6; horiek guztiak 2004ko lehenengo zazpi hilabeteekin alderatua.

2005eko uztailean hil arteko aldakuntza positiboa izan zen industri sektore handi (ISH) guztietan, 2005eko ekainaren aldean. *Energiak* %3,0ko hil arteko hazkundera izan zuen, *bitarteko ondasunek* %0,5ekoa, *ekipo-ondasunek* %1,9koa eta *kontsumo-ondasunek* %3,2koa; horien barruan, *kontsumo-ondasun iraunkorrek* %4,5ekoa eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* %2,6koa.

Bilakaera lurralde historikoka

Lurralde historikoei dagokienez, uztaileko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak antzekoak izan ziren lurralde guztietan: %7,7 hazi zen Bizkaian, %7,5 Araban eta %5,0 Gipuzkoan. Urteko lehenengo zazpi hilabeteetako metatua, %3,7 hazi zen Gipuzkoa, %2,7 Bizkaia eta %1,9 Araba.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasen bilakaerak (2005eko uztaila, urte bereko ekainaren aldean) positiboak izan ziren hiru lurraldetan: Araban %3,6 hazi zen, Bizkaian %1,5 eta Gipuzkoan %0,5.

Taula: 2005eko UZTAILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen bilakaera, ehunekoetan

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	uzt05/uzt04	At/At-1 (1)	uzt05/eka05	eka05/mai05
Indize orokorra: Euskal AE	6,6	2,9	1,6	1,3
Araba	7,5	1,9	3,6	-0,1
Bizkaia	7,7	2,7	1,5	3,0
Gipuzkoa	5,0	3,7	0,5	0,1
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	6,8	0,6	3,2	0,6
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	5,1	0,8	4,5	0,3
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	7,8	0,6	2,6	0,8
Ekipo-ondasunak	8,7	6,1	1,9	0,3
Bitarteko ondasunak	4,4	1,7	0,5	1,5
Energia	6,6	1,4	3,0	4,7

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi berdinenaren aldean

Iturria: Eustat

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 e-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp